

memoria

2020

agiria



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Aurkibidea

Bizkaiko Garraio Partzuergoa, BGP	1
Garraio Publikoaren Koordinazioa	10
2020ko Finantzaketa	27
2020ko Mugarriak	32
2020ko Kontuak	36



Bizkaiko Garraio Partzuergoa, BGP

Bizkaiko Garraio Partzuergoa, BGP

1975eko abenduaren 30ean aldarrikatu zen Estatuko lehenengo Garraio Partzuergoa eratzea ahalbidetu zuen legea: Bizkaiko Garraio Partzuergoa. Lege horrek ondoko eskumen hauek ezarri zituen, erakundeak garatu zitzan:

- a) Bilboko Tren Metropolitarraren obren finantzaketa, eta beraren gainegiturako proiektu eta obrak eta ekipamendu orokorra lortzea.
- b) Bilboko Tren Metropolitarraren ustiapenaren kudeaketa, Metro Bilbao S.A.ren bidez, oso-osorik Bizkaiko Garraio Partzuergoarena dena.
- c) Bizkaiko lurralde-eremuko garraio sistemaren funtzionamenduaren zaintza, gainerako administrazioekin batera beharrezko neurriak hartuz.
- d) Garraio gaietan ematen zaizkion eskumenak betetzea, Bizkaiko garraio publikoa antolatzeko eta koordinatzeko plan baten bidez.

Lehenengo bi eskumen arloen garapenari esker, 1995eko azaroaren 11n Metro Bilbaoren 1. linea inauguratu zen, eta 2002ko apirilean, 2. linea. Haien ustiapena Metro Bilbao S.A.ri dagokio.

Autonomia Estatutuarekin eta Itun Ekonomikoarekin BGParen jardueraren behin betiko bultzada iritsi zen. 1980an estatuak Bizkaiko Garraio Partzuergoari dagozkion eskumenak eman zizkion Euskal Autonomia Erkidegoari.

Eusko Jurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak osatzen dute erakundea, baita Bilboko Hiri Trenbidea handik igarotzen delako ukitzen diren gainerako udalak ere; Eusko Jurlaritzak haren %50 finantzatzen du eta Bizkaiko Foru Aldundiak beste %50a.

Kudeaketa organoak

Partzuergoa, bere izaera dela-eta, erakunde plurala da. Bizkaiko garraio publikoan lan egiten duten administrazio guztiek bere lekua dute bertan. Partzuergoaren jardueran Bilboko Tren Metropolitarraren garapena (partzuergoaren ardatza dena) eta garraioa koordinatzeko jarduketan ezarpena dira alor garrantzitsuenak.

Eman zaizkion helburuak betetzeko, Bizkaiko Garraio Partzuergoak kudeaketa organo hauek dauzka:

Kontseilu Nagusia.
Batzorde Betearazlea.
Zuzendari nagusia.

Kontseilu Nagusia eta **Batzorde Betearazlea** partzuergoko kide anitzeko organoak dira, eta eztabaidatzeko, erabakitzeko eta betearazteko funtzioak (estatutuetan aipatuak) betetzen dituzte.

Zuzendari nagusia pertsona bakarreko organoa da. Bizkaiko Garraio Partzuergoaren jardunaren zuzendaritza administratiboa eta teknikoa dagozkio, kide anitzeko organoek ematen dizkieten jarraibideak betez.

Kontseilu Nagusiak diziplina zehatzak aztertzeke txostenak egin ditu.

2020ko abenduaren 31n ondoko hauek zeuden:

Programazio eta Garapen Teknikoko ponentziak
Antolaketako, Koordinazioko eta Araubide Juridikoko ponentzia
Ogasuneko, Finantzaketako eta Gai Ekonomikoetako ponentzia
Plangintzako eta Abian Jartzeko ponentzia
Tarifak Integratzeko Batzorde

Kontseilu Nagusia

Bizkaiko Garraio Partzuergoko kudeaketa organo gorena da. Haren kideek zerikusia duten administrazioak ordezkatzeko dituzte. 2020an, Kontseilu Nagusia 7 aldiz batzartu zen.

2020ko abenduaren 31n, Kontseilu Nagusiak kide hauek zeuzkan:

Presidentea

Unai Rementería Maiz jn.
Bizkaiko Ahdun Nagusia

Presidenteordea

Amaia del Campo Berasategui and.
Barakaldoko Udaleko alkatea

Kontseilariak

Miguel Ángel Gómez Viar jn.
Garraioak eta Mugikortasun jasangarriko foru diputatua
Bizkaiko Foru Aldundia

Luis Pedro Marco de la Peña jn.
Azpiegitura eta Garraioko sailburuordea
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Eusko Jaurlaritza

Miguel de los Toyos Nazabal jn.
Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren sailburuordea
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Eusko Jaurlaritza

Hernando Lacalle Edeso jn.
Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea
Ekonomia eta Ogasun Saila
Eusko Jaurlaritza

Ivan Pedreira Lanchas jn.
Garraio Plangintzaren zuzendaria
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Eusko Jaurlaritza

María Dolores de Juan de Miguel and.
Garraio Azpiegituren zuzendaria
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Eusko Jaurlaritza

Paloma Usatorre Mingo and.
Zerbitzu zuzendaria
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Eusko Jaurlaritza

Josu Iñaki Garay Ibañez de Elejalde jn.
Aurrekontu zuzendaria
Ekonomia eta Ogasun Saila
Eusko Jaurlaritza

Yurdana Burgoa Valtierra and,
Kabineteko eta Komunikazioko zuzendaria
Ekonomia eta Ogasun Saila
Eusko Jaurlaritza

David Álvarez Martínez jn.
Ondare eta Kontratazioko zuzendaria
Ekonomia eta Ogasun Saila
Eusko Jaurlaritza

Francisco Javier Arnáez Arrecigor jn.
Zuzendari Nagusia
Finantzen Euskal Institutua
Eusko Jaurlaritza

Francisco Javier Seoane Ikarán jn.
Euskotrenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A.-ko zuzendari nagusia

Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta jn.
Euskal Trenbide Sareko zuzendari nagusia

Julián Ferraz Sumillera jn.
Euskal Trenbide Sareko Plangintza eta Proiektuen zuzendaria

Juan María Aburto Rique jn.
Bilboko Udaleko alkate-udalburua

Aitziber Oliban Gutierrez and.
Erandioko Udaleko alkatea

Asier Iragorri Basaguren jn.
Basauriko Udaleko alkatea

Lorenzo Oliva Santamaria jn.
Etxebarriko Udaleko alkatea

Mikel Torres Lorenzo jn.
Portugaleteko Udaleko alkatea

Amaia Agirre Muñoa and.
Getxoko Udaleko alkatea

Aintzane Urkijo Sagredo and.
Santurtziko Udaleko alkatea

Alfonso Gil Invernón jn.
Bilboko Udaleko zinegotzia

Ainhoa Basabe Melendez and.
Sestaoko Udaleko zinegotzia

D. Juan Carlos Martínez Llamazares
Leioako Udaleko bigarren alkateordea



Batzorde Betearazlea

Batzorde Betearazlea 5 aldiz batzartu zen 2020. urtean.

Urte horretako abenduaren 31n, organo horrek kide hauek zeuzkan:

Presidentea

Unai Rementería Maiz jn.
Bizkaiko Ahdun Nagusia

Presidenteordea

Amaia del Campo Berasategui and.
Barakaldoko Udaleko alkatea

Kontseilariak

Luis Pedro Marco de la Peña jn.
Azpiegitura eta Garraioko sailburuordea
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Eusko Jaurlaritza

Hernando Lacalle Edeso jn.
Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea
Ekonomia eta Ogasun Saila
Eusko Jaurlaritza

María Dolores de Juan de Miguel and.
Garraio Azpiegituren zuzendaria
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Eusko Jaurlaritza

Ivan Pedreira Lanchas jn.
Garraio Plangintzaren zuzendaria
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Eusko Jaurlaritza

Josu Iñaki Garay Ibañez de Elejalde jn.
Aurrekontu zuzendaria
Ekonomia eta Ogasun Saila
Eusko Jaurlaritza

Juan María Aburto Rique jn.
Bilboko Udaleko alkate-udalburua

Mikel Torres Lorenzo jn.
Portugaleteko Udaleko alkatea



Garraio Publikoaren Koordinazioa

Garraio publikoaren koordinazioa

Behatoki orokorra


Bizkaiko garraio publikoen koordinazioaren arduraduna den aldetik, BGPak behatoki orokorreko papera betetzen du, eta garraioaren bilakaeraz interesa duten eragile guztiei informazioa ematen die, hilerro herritarren mugikortasunaz egiten dituen txostenen bidez, webgunean argitaratzen direnak.

Era berean, BGPk beste erakunde batzuekin (estatu-mailakoak nahiz nazioartekoak) lankidetzan dihardu bidaiarien garraio publikoko sistemaren adierazle nagusien bilakaera aldizka aztertzeko, zeinek bere eremuan. Metropolitarr Mugikortasunaren Behatokiko, EMTAko kide da (European Metropolitan Transport Authorities). Bertan, Europako garraio-autoritate nagusiak aldizka biltzen dira eragiten dizkieten gaiak aztertzeko.


Garraio publikoa Bizkaian

2020a Covid-19aren pandemiak eragindako urtea izan zen, eta horrek jarduera murriztea eragin zuen. 2020. urtean 111.274.879 bidaiari izan dira.

1. grafikoa. Garraio publikoko bidaiarien bilakaera (milakoak).



2. grafikoa. 2020ko bidaiaren banaketa garraibide desberdinetan.



Garraio Publikoaren erabiltzaileentzako aparkalekuak

Bizkaiko Garraio Partzuergoak garraio moduekin loturiko lau aparkamendu ditu garraio publikoaren erabiltzaileentzat, Garraio Publikoaren erabiltzaileentzako tarifa merkeekin.

2020an Ibarbengoako aparkalekua inauguratu zen Ibarbengoako geltokia ireki zelako.

Leioan, Etxebarrin, BECen eta Ibarbengoan daude kokaturik, guztira 1.123 aparkaleku eskuragarri, eta 2020. urtean 191.564 ibilgailuk erabili zituzten aparkaleku horiek.

Barik, kontakturik gabeko txartela

Gero eta jende gehiagok erabiltzen du Barik txartela; hau da, agerian geratu da Bizkaiko garraio publikoak bide onari eutsi diola. Garraiobide guztietan egin diren joan-etorrien %85,35 txartel adimendu horrekin egin dira. Gainera, urtero-urtero, gero eta erabiltzaile gehiagok erabiltzen dute txartela.

BGPren Barik txartela honako helburu hauekin sortu zen: estandarra, independentea eta erraz erabiltzeko modukoa izatea, kolektibo guztientzat eta garraiobide guztientzat balioduna, eta garraio publikoaren erabiltzaile guztiei konponbideak ematea, erabilera erakargarriagoa eta errazagoa eskainiz.

Barik txartela merkaturatzeko, kolektibo pilotua sartu zen garraiobideetan pixkanaka-pixkanaka eta, 2012ko urriaren 11n, modu masiboan martxan jarri zen.

Metro Bilbaok 2011ko irailean ezarri zuen txartela, Bilboko tranbiak 2011ko abenduan eta Bilbobus hiri-autobusen zerbitzuak 2012ko urtarrilean. Euskotrenen linea orokorrek eta Txorierriko lineak, berriz, maiatza eta ekaina bitartean ezarri zuten eta Bizkaibusek, 2012ko ekainean.

2012ko irailetik aurrera, beste zerbitzu batzuetan ere erabiltzen hasi zen: Ereagako igogailuan, Bizkaia Zubian, Barakaldoko eta Etxebarriko hiri-autobusen zerbitzuetan (Kbus eta Etxebarribus) eta Artxandako funikularrean. Renfek 2013ko azaroan atxiki zitzaion Barik sistemari eta, 2014ko apirilean, lehengo Feve konpainiaren lineak (egun Renferenak dira). 2019ko apirilaren 30ean Leioako, Lejoan Busa, autobus zerbitzua Barik sisteman sartu zen.

Barik txartel mota bi daude, anonimoa eta pertsonalizatua (argazkiarekin).

Barik txartel anonimoa Metro Bilbao, Larreineta eta Renferen txartelen autosalmentarako makinetan, Zubi Esekiaren eta Artxandako Funikularraren instalazioetan, Bilbobus eta Bizkaibus-eko kabinetan eta Bizkaiko 900 establezimendutan (estankoak, kioskoak eta beste lokal komertzial batzuk) baino gehiagotan eskura daiteke.

Txartel pertsonalizatua eskatzen da hileko tituluak eta hainbat profil izan ditzaketen baldintza bereziak eskuratzeko:


- Familia ugaria, F20 kategoria orokorrekoa eta F50 kategoria berezikoak, %20ko eta %50eko deskontuekin hurrenez hurren.
- Giza, 65 urtetik gorakoentzat, erabateko baliaezintasuna edo handia dutenentzat edo %65eko ezintasuna edo handiagoa dutenentzat.
- Bilbotrans, (Bilboko Udala).
- Gazte, Bizkian eroldaturiko 26 urtetik beherakoentzat.

Barik txartel-moten hazkundea esponentziala izan zen; 2020ko abenduaren 31n 1.774.697 Barik txartel egon ziren zirkulazioan, horien %74,38 anonimoak eta %25,62 pertsonalizatuak.


Barik txartela 2020an.

	Pertsonalizatua	Anonimoa	GUZTIRA	
Barik Kide	225.830	1.319.935	1.545.765	%87,10
Barik Giza	228.932	-	228.932	%12,90
GUZTIRA	454.762	1.319.935	1.774.697	%100

3. grafikoa. Txartelak 2020an



4. grafikoa. Txartel pertsonalizatuak 2020an



Garraio publikoetan Barik txartelarekin bidaiatu ahal izateko, horrek bidaia-txartelaren bat izan behar du. Horretarako, alde zuzenetik kargatu behar dira txarteletan.

Partzuergoko Barik txartelek bi txartel mota onartzen dituzte: diru-txartelak eta epe-txartelak.

- Diru tituluak: Creditrans eta Gizatrans. Gehienez 90,00 euro kargatu daitezke, eta balioztatze bakoitzak dagokion tarifa deskontatzen du. Kasuan kasu, honako deskontuak aplika daitezke: profil deskontuak, garraio aldatetakoak, barneko garraio aldatetakoak...
- Aldi baterako tituluak:
 - Monomodalak: Hileko Gazte Bilbao, 26 urte baino gutxiagoko gazteentzat, elkarren segidako 30 egun bidaiatzeko
 - Multimodalak: Bidai 50, Bidai 70 eta Bidai Oro, orokorrean, herritarrentzat eta Gazte 70 eta Gazte Oro 26 urte baino gutxiagoko gazteentzat, elkarren segidako 30 egun bidaiatzeko

Barik txartelak eta horren barruan sartzen diren bidaia-tituluek egoki funtzionatu dezaten, beharrezkoa da ezagutza orokorreko arauak ezartzea. Hori dela eta, bi ordenantza hauek egin ziren: Barik txartelari eta txartel horrek dakartzan garraio-tituluei buruzko ordenantza arau-emailea eta Barik txartelari lotutako zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza. Biak argitara eman ziren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) eta PGBren webgunean.

Barik txartela leku hauetan kargatu daiteke: Metro Bilbao, Euskotren, Euskotran, Renfe eta Feveren makina automatikoetan; Artxandako eta Larreinetako funikularren instalazioetan; tabako-denda eta kiosko komertzialetan.

Horrez gain, BGPren webgunetik edozein titulu erosi eta kargatu daiteke Barik txartelean eta, 2016ko otsailetik –funtzionamendua kolektibo pilotu baten bidez probatu eta egiaztatu izan ostean–, telefono mugikorren bitartez egin daitezke kontsultak eta kargatzeak NFC teknologia erabilita; hain zuzen ere, ordainketa-pasabide baten bitartez ordaintzen da kasuan kasuko zenbatekoa, BGPren zerbitzari zentraletan. Azken bi aukera horiei esker, erabiltzaileek edonondik erosi eta kargatu ditzakete tituluak Barik txartelean, diru-tituluak zein aldi baterakoak.

BGPren titulu guztiak kargatu daitezke, diru-txartelak edo aldi baterakoak izan.

2017ko azaroan abian jarri zen garraio publikoaren bulego sare integrala. Bezeroaren arretarako hamaika bulego ditu eta leihatila bakar gisa aritzen dira. 94-685.50.00 telefono zenbaki bakarra ere abian jarri zen.

BGParen garraio-txartelak

Gaur egun, Bizkaiak zenbait administrazio dauzka, bidaiarien garraio publikoaren eremuan eskumenak dauzkatena. Haietako bakoitzak bere bitartekoak eta bere tarifa-politika dauzka. Horrenbestez, bakoitzak bere zonakatzea, bere txartelak eta bere kudeaketa eredia dauzka.

Sakabanaketaren ondorioz, eta 1995. urtean BHT inauguratu zenez gero, alor honetan aldaketak egin beharra egon zen. Hori dela eta, 1997. urtean BGPk tarifak koordinatzeko eta bidaiarien garraio publikoa berrantolatzeko esparru-akordioak negoziatu zituen eta ohiko txartelak sortu zituen. Eusko Jurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak biak sinatu zituzten.

2000. urtean Creditrans sortu zen, 2008an Gizatrans eta 2014an Gazte Metro Bilbao eta Gazte Bizkaibus hileko tituluak. Azken horiek 26 urtez azpiko gazteei zuzenduta daude. 2015eko urtarrilean aldiz, partzuergoko hirugarren Gazte titulua ezarri zen, Gazte Bilbao. Gazte Metro eta Gazte Bizkaibus, 2017ko apirilean merkaturatzeari utzi zioten.

2017ko martxoan, metro zerbitzuko 3. Linea irekitzean, partzuergoko aldi baterako titulu multimodal berriak ezarri ziren (Bidai 50, Bidai 70, Bidai Oro, Gazte 70 eta Gazte Oro).

Bidai izeneko tituluak 26 urtetik gorakoentzat dira, eta Metro Bilbaon, Euskotrenen, Lejoan Busa, (Leioa), Bilboko tranbian eta Larreinetako funikularrean erabil daitezke.


Gazte tituluak, aldiz, Bizkaian erroldatuta dauden 26 urtetik beherakoentzat dira eta, aipatutako garraio bidez gainera, Bizkaibusen ere erabil daitezke. Bidai 50, Bidai 70 eta Gazte 70 bidaia mugatuko eta aldi baterako tituluak dira; Bidai Oro eta Gazte Oro tituluekin, ordea, mugarik gabe bidaia daitezke titulua indarrean egon bitartean.

Era berean, 3. linea abian jartzean, partzuergoko noizbehinkako titulu bat ezarri zen, Metro Zerbitzurako baliozkoa (1. linea, 2. linea eta 3. linea).


2020ko ekitaldian zehar Bizkaian 99,2 milioi bidaia baino gehiago egin ziren BGPk emandako garraio tituluekin. %66,88 Creditrans tarifarekin egindako bidaiei dagokie, %14,4 Gizatransi eta %17,8 aldi baterako tituluei; gainerako %1, aldiz, metro zerbitzurako balio duen eta euskarri magnetikoa duen partzuergoko aldi baterako tituluari dagokio.

Datu horien arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako bidaia guztien %89,17koa izan zen merkatu-kuota.

5. grafikoa. Garraiobide desberdinetan ohiko txartelen erabilera 2020an.



6. grafikoa. Ohiko txartelekin egindako bidaien bilakaera eta merkatu kuota 2020an.



Creditrans

2000ko irailean sortu zen, esparru akordioaren garapenaren ondorioz. Azken 10 urteetan garraio publikoaren erabiltzaileentzat erreferentzia bihurtu da.

Txartel mota honek diru-zenbateko bat gordetzen du, eta garraio zerbitzu bakoitzak bere tarifak aplikatzen dizkio gero, egindako joan-etorriaren arabera. Txartel honetan aplikatzen den tarifa merkeagoa da joan-etorriko txartelena baino.

Creditransek, gainera, transbordoak egitea errazten du, prezio merkeagoan, bigarren operatzailean bidaia konbinatuaren prezio osoaren %20 deskontatzen duelako.


2009ko urtarrilean familia ugarietzako garraio txartelak sortu ziren. BGPak Hirukotrans sortu zuen, Creditrans daukaten familia ugarietzat.

2012an, Barik txartela abiarazi zela eta, euskarri honetan dago garraio-titulu hori, bertan karga daiteke gutxienez 5€-rekin, eta txartelean gehienez 90€-ko saldoa eduki daiteke.


2020. urtean, Bizkaiko Lurraldean, 66.249.554 bidaia egin ziren titulu hori erabiliz, hau da, aurreko urtean baino %7,77 gehiago.

Creditrans txartelak %59,54 ezarpena izan zuen merkatuan 2020. urtean.

7. grafikoa. Garraiobide desberdinetan Creditrans txartelaren erabilera 2020an.



8. grafikoa. Creditrans txartelarekin egindako bidaien bilakaera eta merkatu kuota 2020an.



Gizatrans

2008 hasieran BGPak Gizatrans txartel berria sortu du; txartel honek hobaridun tarifa soziala du eta soilik erabil dezakete 65 urteko edo gehiagoko pertsonak edo ezintasun jakin bat duten pertsonak.

Hasieran, bi modutan baizik ezin erabil zitekeen, baina urtearen barruan, Creditrans-ek funtzionatzen duen ia sare osora zabaldu zen haren erabilera.


Gizatrans-ek titularra onuraduna dela egiaztatzen duen agiri bat behar du (Barik berezko txartela), baliozkotzea egiteko eta, beraz, bidaia ordaintzeko behar den txartela eskuratzeko. Horrenbestez, txartel pertsonalizatua da eta titularrak bakarrik erabili ahal du.

Gizatrans-ek ere izan zituen familia ugarietzako txartel bereziak, 2009ko urtarrilean.


2020. urtean, Bizkaiko Lurraldean, 14.269.069 bidai egin ziren titulu hori erabiliz, hau da aurreko urtean baino %44,81 beherakada.

Gizatrans txartelak %12,82eko ezarpena izan zuen merkatuan 2020. urtean.

9. grafikoa. Garraiobide desberdinetan Gizatrans txartelaren erabilera 2020an.



10. grafikoa. Gizatrans txartelarekin egindako bidaien bilakaera eta merkatu kuota 2020an.



Aldi baterako tituluak

2015eko urtarrilaren 14an, Bilbobusen ezarri zen Barik txartelean Gazte Bilbao tituluak. Partzuergoko aldi baterako titulu hori 26 urtetik beherako gazteentzat pentsatu da. 2020an 191.848 bidaia egin ziren aldi baterako titulu horrekin.

2017ko martxoaren 8az geroztik, Bizkaiko garraio publikoaren erabiltzaileek beren Barik txartelean hainbat bidaia operadoretarako balio duten titulu multimodalak kargatu ditzakete, mugatuak zein mugagabeak, oro har jende guztiari zuzendutakoak zein 26 urtez azpiko gazteei zuzendutakoak. Pertsonalizatutako Barik txartel batean kargatu daitezke, eta titularrak bakarrik erabil ditzake.

- Bidai tituluak: Oro har jende guztiari zuzendutakoak. Metro Bilbaon, Euskotrenen, Bilboko Tranbian, Lejoan Busa eta Larreinetako funikularrean bidaiatzeko balio dute.
 - Bidaia mugatuko tituluak: Bidai 50 eta Bidai 70: Baliozkotasun datatik zenbatzen hasita elkarren segidako 30 egunetan zehar 50 edo 70 bidaia egin daitezke, hurrenez hurren, Barik txartelean kargatzerakoan aukeratutako jatorrien eta xedeen artean. Behin bidaiak amaituta, berriro ere kargatu daitezke.
 - Bidaia mugagabeko tituluak: Bidai Oro: Baliozkotasun datatik zenbatzen hasita elkarren segidako 30 egunetan zehar nahi adina bidaia egin daitezke Barik txartelean kargatzerakoan aukeratutako jatorrien eta xedeen artean.
- Gazte tituluak: Bizkaiko edozein udalerritan erroldatuta dauden eta 26 urte baino gutxiago dutenei zuzenduta daude. Metro Bilbaon, Euskotrenen, Bilboko Tranbian, Lejoan Busan eta Larreinetako funikularrean bidaiatzeko balio dute.
 - Bidaia mugatuko tituluak: Gazte 70: Baliozkotasun datatik zenbatzen hasita elkarren segidako 30 egunetan zehar 70 bidaia egin ahal izango dira, hurrenez hurren, Barik txartelean kargatzerakoan aukeratutako jatorrien eta xedeen artean. Behin 70 bidaiak amaituta, berriro ere kargatu daitezke.
 - Bidaia mugagabeko tituluak: Gazte Oro: Baliozkotasun datatik zenbatzen hasita, elkarren segidako 30 egunetan zehar nahi adina bidaia egin daitezke Barik txartelean kargatzerakoan aukeratutako jatorrien eta xedeen artean.

Familia ugariaren profila egiaztatzen dutenei %20ko (kategoria orokorrekoa bada) edo %50eko (kategoria berezikoa bada) deskontua aplikatuko zaie tituluaren baliozkotzea hasten den unetik.

Ezarri zenetik 2020ko abenduaren 31ra bitartean 12.914.822 bidaia egin ziren Bidai 50, Bidai 70 eta Bidai Oro txartelekina, eta 4.595.725 bidaia Gazte 70 eta Gazte Oro txartelekina.

Aldi baterako tituluak %15,91teko ezarpena izan zituen merkatuan 2020. urtean.

Aldian behingo titulu komuna

3. linea abian jarri zenean eta noizbehinkako bidaiariei erantzun bat emate aldera, banda magnetikodun txartel bat ezarri zen, BGPk emandakoa eta metro zerbitzuan bidaia bakarria egiteko balio duena (1., 2. eta 3. lineak). Txartelak prezio desberdina dauka erosi den zona kopuruaren arabera, eta 2 ordu irauten du, sarrera ezeztatu den unetik zenbatzen hasita.

2020an 1.003.823 bidaia egin ziren txartel honekin.


Aldi baterako titulu komunek %0,90ko ezarpen-kuota izan zuten merkatuan 2020. Urtean.

BBC Txartela

2014ko uztailan BBC txartela ezarri zen, Bilbao Card txartelaren eraginpeko eremua ordeztu eta hedatu duena. Bilboko mugak gainditu eta Bizkaia ere hartzen duen txartela bihurtu da, eta Bizkaibusen, Metro Bilbaon, Euskotrenen, Bilbobusen, Lejoan Busan (Leioa), Bilboko Tranbian, Artxandako funikularrean eta Larreinetako funikularrean ere erabil daiteke. Bilbao Bizkaia Card (BBC) izena eman zaio, eta mugarik gabe sistemarekin bat egindako garraio moduetan 24, 48 edo 72 orduz bidaiatzeko eskura daiteke, erositako txartel motaren arabera.

2020an 5.493 txartela banatu ziren, saldutako txartelen %44,07 izan dira 24 orduko bere erabilerarako, %28,88, 48 ordurako eta %27,05, 72 ordurako.

11. grafikoa. BBC txartela erabiltzeko moduen banaketa 2020an.



Elkarreragingarritasuna

Barik txartelak izan duen zabalkundea ikusita, erakundeek txartela Bizkaitik kanpo erabiltzeko aukera ematea adostu dute. Helburu horrekin, hain zuzen, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak hitzarmena sinatu zuten Barik eta Mugi txartelak lurralde bakoitzeko ET/FV-ren garraiobide desberdinetan erabiltzeko. Horrek txartelen elkarreragingarritasuna ahalbidetu du zona horretan.

Eusko Jaurlaritzak eta Lurralde Historiko bakoitzeko garraioaren agintariak elkarreragingarritasunerako masterplan bat adostu dute, garraio-txartela EAEko lurralde guztietan erabili ahal izateko, txartel barruko diru-txartela erabiliz.

Elkarreragingarritasuna pixkanaka-pixkanaka zabaltzen ari da. 2014an, Bilboko eta Larreinetako funikularretan ahalbidetu zen Bat eta Mugi txartelak erabiltzea, eta Barik txartela Gasteizko tranbian. Azken garraiobide horretan, Mugi txartela ere onartu zen 2015ean. 2016an, Euskotrenen Linea Orokorrean ere ezarri ziren txartel horiek, eta Bat txartela Metro Bilbaon. 2017ko otsailaz geroztik pixkanaka ezarri zen Barik txartelaren erabilera Donostiako DBus-en lineetan.

2020. urtean zehar, Euskotrenen linea orokorrean 145.950 bidaia egin dira hiru txartelak erabiliz (Bat, Mugi eta Barik). Gasteizko tranbian 58.000 bidaia egin dituzte Barik txartelarekin, eta DBus lineetan, berriz, 45.654 erabiltzailek joan-etorrietarako erabili dute Barik txartela.

Metro Bilbaon 34.007 bidaia egin dira BAT txartela erabiliz. Bilboko tranbian 26.794, BAT eta MUGI txartelekin, eta 508, Larreinetako Funikularrean ere, BAT eta MUGI txartelekin.

Bizkaiko garraio publikoen bezeroei arreta emateko bulegoen sarea

Barik txartela Bizkaiko garraio publikoan zabaldu eta unibertsal egin da, eta, gainera, titulu multimodal komun berriak jarri dira martxan; hori dela eta, bezeroei arreta emateko bulegoak sortu behar izan ziren. Globalki esanda, zeinen arauak eta berdintasuna Bizkaiko Garraio Partzuergoaren erantzukizuna da, Bizkaiko garraio sistema guztietarako balio dute eta erabiltzaileei arreta ematen diete kargatzeak egin dituzten tokiak, erabilitako garraiobidea eta gorabeherak gertatu diren lekua alde batera utzita. Herritarren eskaerei erantzuten diete, eta, horrela, erakundeen arteko eskumenen banaketan dute eragina. Hala, garraio publikoaren bulego sare integrala sortu zen, hasiera batean, leihatila bakar gisakoa eta erabiltzaileei arreta emateko telefono zenbaki bakarrekoa: 94-685.50.00.

BGPK garraioaren eremuko operadoreekin eta erakundeekin hainbat akordio eta hitzarmen sinatu zituen. Bezeroei arreta emateko operadoreen bulegoetako funtzionamenduaren urratsak zehazteko egin ziren, horiei buruzko ikuspegi integral berri batekin.

Gaur egun 11 bulegok osatzen dute garraio publikoaren bulego sare integrala. 2020an, Covid-19aren pandemiak hala eraginda, itxita egon ziren martxoaren 18tik maiatzaren 10era arte. 2020ko abenduaren 31n hauek ziren:



- **Bizkaiko Garraio Partzuergoaren bulegoa**
- Bilbo: San Mameseko Geltoki Intermodala

- **Metro Bilbao eta Euskotrenen bulegoa**
- Bilbo: ZazpiKaleak-Casco Viejo geltokia, San Nikolaseko sarrera



- **Metro Bilbaoko bulegoak**
- Areeta: Geltokiaren kanpoaldean. Ibaigane kalea 17, Getxo
- Ansio: Geltokian, Ansio plaza z/g, Barakaldo



- **Euskotrenen bulegoak**
 - Durango: Geltokian, Geltoki Kalea
 - Gernika: Geltokian, Geltoki plaza, z/g, behea

Bilbobus

- **Bilbobuseko bulegoa**
 - Bilbo: Poza Lizentziatuaren kalea, 8

renfe

- **Renfe-ren bulegoa**
 - Bilbo: Abandoko geltokian, Plaza Biribila, 2



- **Bizkaibuseko geltokiak**
 - Leioa: UPV/EHUren Bizkaiko Unibertsitate Campusa (Gizarte Zientzien fakultatearen azpian)
 - Sodupe: Galarraga zeharbidea 20, udal bulegoak
 - Portugalete: San Roke plaza, Herritarrei arreta emateko bulegoa



2020ko Finantzaketa

Finantzaketa

BGParen finantzaketan lortu nahi ditugun ezaugarri nagusiak egonkortasuna eta oreka dira. Horregatik, BTMaren inbertsioen plangintza eta finantzaketa ez dira ekintza puntualak; aitzitik, erabaki bakoitza 2027. urtera arteko zerumugan ebaluatzen dira. Horrela, osotasuna ahalik eta bateratuen izatea nahi dugu.

Partzuergoaren finantza eskema globala bere Finantza Planean jasotzen da. Dokumentu horrek ia 40 urteko agertokia proposatzen du eta sistema orekatua eta bideragarria diseinatzen du. Horregatik, gaur egun hartzen ditugun erabakiek finantzaketaren etorkizunean izango duten eragina ebaluatzen da.

Finantzaketa Plan honek izaera dinamikoa dauka. Hau da, urtero berrikusten da, eguneratuz, epe luzeko agertoki bat sortzeko asmoz, finantzaketa beharizanak aurreikustea eta programatzea ahalbidetzen duena.

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren berezko jarduerak finantza-ondorioak dituzte. Erakundeak Bilboko Tren Metropolitarraren obren gauzapena finantzatu behar du, metroaren balizko ustiapen-defizita diruz lagundu behar du, zorpetetik eratorritako finantza-zamari aurre egin behar dio, eta bere eskumenetatik eratortzen diren gainerako inbertsioak eta gastuak bere gain hartu behar ditu.

Halaber, BGPk konpentsazio ganberaren eginkizuna du garraio-txartel guztiekin eta Barik txartelarekin.

Horregatik guztiagatik, Bizkaiko Garraio Partzuergoak etengabeko finantzaketa behar du. Kokatzen den erakunde-sarea berezia denez, eta bere sorrera-legeak ematen dion bitxitasuna dela-eta, finantzaketa hori euskal erakundeen ekarpen parekideen bidez eta zorpetzearen bidez artikulatu behar da batez ere; bien artean orekatutako sistema bat sortu behar da. Ezaugarri hori kontuan izanik, euskal administrazioek ahalegin berezia egin behar dute, BTMaren obrak finantzatzeko zama osoa hurrengo belaunaldiengan ez ipintzeko.

Erakundeek ekarpenak

Eskema ekonomikoa oinarritzen den egitura Sorrera Legean finkatzen da. Bertan, finantzaketan parte hartzeko konfigurazio hau ezartzen da:

- %50, Eusko Jaurlaritzak
- %25, Bizkaiko Foru Aldundia
- %25, partzuergoko udalak

Udalerriek ez zeuzkaten Metroaren proiektua finantzatzeko behar ziren baliabideak, horregatik, 1986. urtean, Bizkaiko Foru Aldundia haien betebeharretan subrogatu zen.

Konpromiso hori Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako hitzarmenetan islatu zen. Hitzarmen horien arabera, bazkideetako bakoitzak %50ean finantzatu behar du BTMaren 1. eta 2. lineen eraikuntza. Akordio horien itzalpean, udalek ez dute ekarpenik egin beharko.

Bizkaiko Garraio Partzuergoak bere beharrian ekonomikoak euskal erakundeen aurrekontu-planetara egokitzen ditu, haien ekarpenei dagokienez kadentzia iraunkorra finkatzeko.

Ekarpen horiekin, obrei eta obrak finantzatzeko finantza-zamari aurre egin behar zaie. Aurrekontuaren mugak kontuan izanik, betebehar horien zenbateko osoa ezin da, ekitaldi gutxi batzuetan, formula horren bidez bakarrik nork bere gain hartu. Horregatik, bestelako finantzaketa bideetara jo beharra dago.

Beste baliabide batzuk

1993an finantza-eskemari ikuspegi berri batetik heldu zitzaion: zorpetzea sartu zen, ekarpenen zenbatekoa arintzeko eta haien zenbateko osoa denboraldi luzeago batean banatzeko. Fondo propioen eta besteren fondoen artean oreka bilatu zen, bai epe motzean, bai luzean. Urte horretan zorraren lehenbiziko eragiketak hasi ziren.

Orduz geroztik, Bizkaiko Garraio Partzuergoak zorpetzera jo izan du aldian-aldian; finantza-betebeharren sekuentzia logiko bat ezartzen saiatu da, gorabehera handirik egon ez dadin eta zorraren zerbitzua leuntzeko. Horretarako zenbait tresna erabili dira: maileguak, zor-jaulkipenak, deribatuen erabilera...

Zor bizia 232,01 milioi eurokoa zen 2020ko abenduko 31an; hots, %17,6 txikiago 2019. urteko amaierakoaren aldean.

Bilboko Metroko obren inbertsioak ere Europako zenbait programatan ageri dira.

Kaudimen bermea

1999. urtean, behin eta berriro zorpetzera jo beharra zegoenez, eta erakundeen abalen mende egotea saihesteko, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren berezko kreditu-arriskuko kalifikazioak eskuratzeko izapideak hasi ziren, nazioarteko enpresa ospetsuek emanak.

Zenbateko horiei esker, gaur egun merkatuan zuzenean sar gaitzke. Izan ere, kaudimen-bermea "AA-" egoeran zegoen 2020ko abenduaren 31n, Standard & Poor's-ek bermatuta.

Enpresa horiek rating hauek emateko erabili dituzten faktoreak hauek dira:

- a) Bilboko Tren Metropolitarraren sistemaren garrantzi politiko eta soziala, Bizkaiko garraiobide publikorik garrantzitsuena baita.
- b) BGPren zorraren azken erantzukizuna daukaten bi erakundeen (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia) kreditu-kalitate handia, eta bi erakundeek partzuergoa modu esplizituan babestea.
- c) Bizkaiko Garraio Partzuergoaren aurrekontua ondo betearazi dela Metroak funtzionatu duen bederatzi urteetan.



2020ko Mugarriak

2020KO MUGARRIAK

Lehenengo lauhilekoa

Otsaileko Kontseilu Nagusian onetsi zen Partzuergoko kide diren administrazioak ordezkatu dituzten kontseiluko kideen izendapena eta kargu hartzea, baita Partzuergoko kide anitzeko organoetako kideen izendapena ere.

2020ko uztailaren 22an, Bizkaiko Garraio Partzuergoak eta Sopelako Udalak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten, kontakturik gabeko Barik txartela eta txartel barruko tituluak Sopelbus "Sopela udalerriko hiri autobusaren garraio zerbitzuan" ezartzeko, kudeatzeko eta ustiatzeko.

Otsaileko Kontseilu Nagusiak Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aldaketa Puntualaren Behin-behineko Onespenari (Ormaza-42. zenbakiko arloaren eremuaren barruan) buruzko txosten osagarria berretsi zuen.

Bilbao Exhibition Centre SAK eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak beren gain hartutako eskubide eta betebeharren araubidea arautzen duen hitzarmena egokitzea onetsi da, Bizkaiko garraio publikoko erabiltzaileek Bilbao Exhibition Centre SAREN jabetzakoa den ibilgailuentzako aparkalekua erabiltzeko.

Kontseilu Nagusiak otsailaren 28an onetsi zuen Tuvisak operatzen dituen autobusetan BARIK txartela erabiltzen hastea, Arabako hiriarteko lineetan eta eskualdeko garraio zerbitzuan.

Bigarren lauhilekoa

BMTa berritzeko lizitazioak onesten jarraitu zen, horien artean nabarmendu behar dira, Sopelako kotxe tokiaren katigatzean ATPa zabaltzea eta ardatzen kontagailuak berritzea eta Barakaldo, Peñota, Sopela eta Areeta geltokietako IP sarearen nodoak berritzea.

Ekainaren 15ean Ibarbengoako geltokia inauguratu zen, eta, hori dela eta, Ibarbengoako aldirietako aparkalekua zabaldu zen, 295 aparkaleku dituen.

Maiatzaren 28an trenbide sektoreko bi base terminologiko jasotzen dituen Trenbideko Ataria aurkeztu zen: alde batetik, Bizkaiko Garraio Partzuergoak, Bizkaiko Garraio Partzuergoak, CAFek, Metro Bilbaok, Euskotrenek eta Euskal Trenbide Sareak egindako trenbide arloko hiztegia, eta bestetik, Mario Leonek argitaratutako Trenaren Hiztegia eta Trenaren Hiztegi Eleaniztuna bildumak.

2019ko Kontu Nagusia ekaineko Kontseilu Orokorrean onetsi zen, behin betiko.

Hirugarren lauhilekoa

Urriko Kontseilu Nagusian honako lizitazio hau onetsi zen: Bilbo Metropoliko Trenbidearen megafonia sistemaren bilakaera eta erredundantzia eta geltokietan instalatutako sare finkoetan PLCa berritzeko kontratazioa.

Barik txartelaren erabilera zabaltzea onetsi zen BGPren, Bilboko Portuko Agintaritzaren eta Agrupación de Boteros de Portugalete SLren arteko akordio baten bidez, Portugaleteko ontzi zerbitzurako.

Azaroan Garraio Partzuergoak iOS sistema eragilea duten telefonoetarako Barik txartelean dirua sartzeko NFC aplikazio berriko proba faseari ekin zion.

Azaroko Kontseilu Nagusiak Bizkaiko Garraio Partzuergoaren 2021eko aurrekontu orokorrak onetsi zituen. Horien barruan zegoen, besteak beste, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Inbertsio eta Finantza Plana berrikustea, 2020ko abenduan.



2020ko Kontuak

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren kontuak

Cuadro balance CTB

PyG - 1

PyG - 2

Metro Bilbao, S.A.-ren kontuak

MB, hoja 1

MB, hoja 2

MB, hoja 3

Kontu Bateratuak

Cuadro Balance consolidado

Consolidado P y G
Hoja 1

Consolidado P y G
Hoja 2

CTB / BGP

Ugasko, 5 bis – 1º dcha.

Tel.: 94 476 61 50

Fax: 94 475 00 21

partzuergoa@cotrabi.eus

www.ctb.eus